



## Aralar, Europar Batasuneko sarietan

Prentsa oharra

“Aralar, mundua leku den lurra” pelikula, bi urtetik behin ospatzen diren **Natura 2000 sarietan finalista** moduan hautatua izan dela jakinarazi digute gaur (2020ko ekainaren 2an) kaleratu den komunikatu ofizialaren bitartez. Izendapen honek, azken bi urteetan **Europar Batasunean egin diren 27 ingurumen proiekturik onenen artean** kokatzen du Aralarko filma. Natura 2000 sarietan bost kategoria ezberdinetako sariak banatzen dira eta Aralarren inguruko dokumentala komunikazioko lan onenaren sarirako finalista izendatua izan da beste lau proiektuekin batera.

Bost kategoria hauetako irabazleak saritzeaz gain, **hiritarren saria** ere emango du Komisioak. Azken hau, hiritarrek gehien bozkatutako proiektuari emango zaio. Euskal Herriko ordezkari bakarrak gara eta proiektuaren lan taldeko kideok hiritarren saria irabazteko helburuarekin, gure proiektuak ahalik eta bozka gehien lortzeko deia zabaldu nahi dugu. Horretarako, esteka honetan sartu <https://natura2000award-application.eu/finalist/3832>, eta proiektuaren aldeko klik bat egitea eskatzen dugu. Sari banaketa egunean Bruselan bertan egon nahiko genuke, eta horretarako zure laguntza behar dugu.

80 antzokitan proiektatu ostean, 7.000 ikusle baino gehiago izan ondoren eta Estatu Batuetan zein Euskal Herrian sariak irabazi eta gero, proiektuaren azken txanpan etorri zaigu ON Produkzioak eta Landarlan Elkarteari berri ezinhobe hau.

Aralarko dokumentalaren helburua ingurune natural horren ezagutzan sakontzea izan da. Pelikula ikusi duen edonork jakingo du Aralar bezalako natur ingurunerek zein garrantzi duten gizartearentzat eta baita naturarentzat berarentzat ere. Honenbestez guztion erantzunkizuna da hain urriak ditugun eremu naturalak babestea eta hauen kudeaketan giza-jardueren eta natur kontserbazioaren arteko oreka bermatzea.

**Landarlan ingurumen elkarte eta On Produkzioak**



